

-Aguraingo udala:





SAN MARTIN BASELIZA ETA UDALA GARAIEAN

Aguraingo punturik garaienean gaude, San Martin plazatxoan, San Martineko basiliza erromanikoa eta geroago berau bilduko zuen Udala altxatzen diren tokia. Lope de Larrea eskultore aguraindarraren lantegia eta Bustamante familiak gobernatutako aduana bertan zirela uste da.

Aguraingo eraikin zaharrena da San Martin basiliza, sute aurrekoa, XIII. mendekoa hain zuzen. Halere, kanpai horma XVIII. mendekoa da, Juan de Arno eta Diego de Iriarte hargin maisuek 1701 inguruan egina. Nabe bakarreko oinplano angeluzuzena dauka, eta burualde zuzena. Barrualdea kanoi-gangak eta presbiterioaren gaineko arku zorrotzek estaltzen dute. Nabe bakarreko bi zatiak banatzen garaipeneko arku bikoitz bat dauka. Arkuok fuste lisoko zutabeetan eta landare motiboak dituzten kapiteletan finkatzen dira, eta aurrea elizaren, eta ondoren herriko alondegia eta udal artxibategiaren estalpe izan ziren. Gaur egun oso txarabeldua den bao du argi naturalaren sargune bakartzat.

Udaletxea erdia arotik erabiltzen den eraikina da. Sutearen hurrengo urtean eraiki zen baina hogei urte behar izan ziren udaletxe, kartzela, eta udal bihitegi bezala erabiliko zen egoitza bukatzeko. Eraikuntzan inguruko Galzar eta Entziako harriak erabili ziren. Batzar aretoko hamahiru aulkiak 1848koak dira (seina bi aldetan eta handiago bat erdian), baina intxaurrendoko mahaia galdu egin zen.

Fatxadan topatu ditzakegun bitxikerien artean, nagusian aurkitzen den gurutzeak gogorarazten digu. 1750ean kartzelako alkaideA izan zenaren eta bere alabaren erailketa.
